

SAILBURUA
LA CONSEJERA

2017KO MAIATZAREN 12KO AGINDUA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ, BERMATUKO DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ BESTEKO HEZKUNTZA PUBLIKOAREN SEKTOREAN ETA HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN 2017KO MAIATZAREN 16RAKO ETA 23RAKO DEITUTA DAGOEN GREBAK DIRAUCEN BITARTEAN JENDEARI ESKAINI BEHAR ZAIZKION FUNTSEZKO ZERBITZUAK BETEKO DIRELA.

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek greba deitu dute 2017ko maiatzaren 16rako eta 23rako. Greba egun osokoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko hezkuntza publikoaren sektorean eta Haurreskolak Partzuergoan.

Greba deitu dutenek diotenez, "lan-baldintzak eta hezkuntza publikoa defendatzeko" helburua daukate grebaren bitartez. Kolektibo hauei zabaldu diete greba-deia: 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoko irakasleei (26.000 langile inguru). 2.- Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoko hezkuntza bereziko lan-kontratuko langileei (1.100 inguru). 3.- Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoko zerbitzuetako lan-kontratuko langileei (900 inguru) eta 4.- Haurreskolak Partzuergoko langileei (1.300 inguru).

Bestalde, CCOO IRASKUNTZA sindikatuak greba orokorra deitu du, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2017ko maiatzaren 16rako, unibertsitatez besteko hezkuntza publikoaren arloan, eta greba horrek autonomia-erkidegoko esparru geografiko eta juridikoaren barruan dauden hezkuntza-administrazio publikoetako enplegatu publikoek – irakasleek nahiz irakasle ez direnek– egiten dituzten zeregin guztiei eragingo die.

Deialdian esaten denez, greba 2017ko maiatzaren 16an egingo da, egun horretako lanaldian: 0 orduetan hasi, eta 24 orduetan amaituko da. Lanaldi bereziak dituzten zentroetako langileentzat, greba maiatzaren 15eko 22 orduetan hasiko da, maiatzaren 17ko goizeko 8ak arte. Kasu bakoitzean, haien lanaldia amaitu arte iraungo du. Hauek dira grebaren arrazoiak:

"Administrazio eta organismo publikoetako hezkuntza-arduradunak herritar gehieneri, hala hezkuntzako profesionalei, nola guraso eta ikasleei, eragiten dieten neurriak hartzen ari dira alde bakarretik.

Gauzatutako edo gauzatze bidean dauden neurriek berehalako ondorio kaltegarriak dituzte Haur Hezkuntzatik unibertsitatera arteko ikastetxe publikoetako nahiz itunpeko ikastetxeetako hezkuntzako langileentzat.

Hartutako neurri ugarien artean, aipatzekoak dira hauek:

ZAZPI URTEKO ATZERAKADA ETA HEZKUNTZA-MURRIZKETAK

Enplegatu publikoen soldatak % 5 murrizteko eta ordainsariak izozteko 8/2010 Errege Lege Dekretuak berekin ekarri zuen irakasleen gizarte- eta lan-baldintzetan eta gure hezkuntza-sisteman doikuntza batzuk egiten hastea. Zazpi urte geroago, murrizketa horien pilaketak eta hezkuntza-kontrarreformek (LOMCEK, Unibertsitateei buruzko lege organikoaren erreformak eta lege horiek garatzeko errege-dekretuek) atzerapen handia ekarri dute, eta, atzerapen horren ondorioz, aurreko mendeko baldintzetan gaude. Halaber, EAEko

2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legeak eten eta ezabatu egiten ditu, besteak beste, zenbait lan-eskubide: ITZARRI BGAE, borondatezko erre tiroagatiko prima, aldi baterako ezintasunagatiko osagarrien ordainketa eta adinagatiko ordutegi-baimenak.

Labur-labur azalduko ditugu hezkuntza-erlako langileei eta, beraz, hezkuntzari kalte handien egin dieten neurrietako batzuk:

Irakasle gutxiago eta langile gutxiago ikastetxeetan eta unibertsitateetan, lan-ezegonkortasun handiagoa

Bijarpen-tasaren, zama akademikoaren gorakadaren, programak kentzearen eta abarren ondorioz egindako plantilla-murrizketek berekin ekarri dute irakasleen eta irakasle ez diren langileen postu ugari ezabatzea eta lanpostu horiek ezegonkorragoak izatea. Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren datuen arabera, 2012ko urtariletik 2016ko urtarilerara artean, 41.014 postu galdu dira unibertsitate aurreko mailetako irakasle funtzionarioen artean, 4.643 postu unibertsitateko irakasleen artean eta 2.470 postu unibertsitateko administrazioeko eta zerbitzuetao langileen artean.

2011z geroztik (garai hartan, hezkuntza-erlako kontratuen % 8 zen bitarteko kontratua), enplegu publikoko eskaintza etengabe murriztu da, eta, horren ondorioz, irakasle-postuak asko murriztu dira (35.000 inguru), eta enpleguen ezegonkortasunak gora egin du. Horrek esan nahi du unibertsitatez besteko hezkuntzako irakasleen % 25 bitarteko irakaslea dela. Kolektibo hori, ordea, lan-egonkortasuna bermatu beharko litzaioke.

Gainerako sektoreetan, behin-behinekotasuna eta ezegonkortasuna ere nabarmen handitu dira.

1. Hezkuntza-zerbitzuetao eta zerbitzu osagarrietako langileen artean, % 30ek behin-behineko kontratua du.
2. Unibertsitate publikoetako irakasle eta ikertzaileen % 41ek behin-behineko kontratua du, eta, kasu askotan, ezegonkorra.
3. Ikertzaile gehienak unibertsitateentzako aurrekontuen VI. kapituluaren kargura kontratatuta daude, eta behin-behineko kontratuak dituzte.
4. Unibertsitate publikoetako administrazioeko eta zerbitzuetao langileen artean, behin-behineko kontratuak dituztenen kopurua % 17ra iritsi arte hazi da.

Baliabide gutxiago

Giza eta hezkuntza-baliabideen murrizketei hau guztia gehitu behar zaie: murrizketak hezkuntza-maila guztietan azpiegituretan, altzarietan eta ekipoetan egiten diren inbertsioetan; ikastetxeen funtzionamendu-gastuen beherakada orokorra, eta irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuen murrizketa.

Finantzaketa gutxiago

Eusko Jaurlaritzaren 2017ko hezkuntza-erlako aurrekontua 2012koa baino murriztagoa da. 2012an, aurrekontua % 25,3koa izan zen. Ehuneko hori, ordea, oraindik ez da berreskuratu, gaur egun % 24,07koa baita.

Hori 2010ean enplegatu publikoei kendutako zenbatekoak gehitu behar zaizkio (-% 5eko murrizketa soldatetan), bai eta itunpeko irakaskuntzan aplikatutako murrizketa ere.

Gizarte- eta lan-baldintza okerragoak

Gobemuak ezarritako hezkuntza-erlako murrizketa-politikek funtsezko eran eragin diete hezkuntza-erlako langileen bizi-baldintzei:



- *Sektoreko langile guztien soldatak, % 5 murrizteaz gain, izoztu egin dira. Horrek erosahalmena % 15,4tik gora galtzea esan nahi du, KPIk izandako bilakaera kontuan hartuta. 2010etik 2016ra artean, irakasleek soldata garbiaren 10.000 eta 16.000 euro artean gutxiago jasotzen dute (antzinatasunik gabe), zer taldeetan sartzen diren.*
- *Aldi baterako ezintasun-bajentzako prestazio ekonomikoak ezabatu dira, eta, horren ondorioz, gaixotasunagatik bajan igarotzen den denboran ez da ordainsarien % 100 kobratzen.*
- *Gizarte-ekintzetarako laguntzak eta antzeko izaera eta helburua duten laguntzak eten egin dira eta/edo, oro har, gutxiago ematen edo ordaintzen dira.*
- *Bajak ez dira betetzen baja jakinarazi eta 5 egun igaro arte.*
- *58 urtetik gorako eskola-orduen murrizketa eten da.*
- *Irakasteko eskumenak malgutu dira, irakasleak "balioaniztun" bilakatuz, eta horrek berekin dakar irakasleek berenak ez diren espezialitateak irakatsi behar izatea eta langileen kopurua murriztu behar izatea.*

Hortaz, hezkuntzaren sektoreak hau exijitzen du:

- *Gastu publikoa hezkuntzan arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko 14/2012 Errege Lege Dekretua indargabetzea, horren bidez sartu baitziren hezkuntza-erloko murrizketa handienak, eta 20/2012 Errege Lege Dekretua indargabetzea.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legea indargabetzea, lege horrek Euskadiko enplegatu publikoen zenbait lan-eskubide eteten eta ezabatzen baititu.*
- *HEZIBERRI 2020 Plana eta dagozkion dekretuak eta arauak indargabetzea.*
- *LOMCE eta unibertsitateei buruzko legearen erreformak indargabetzea. Orobat exijitzen dugu arau horiek garatzen dituzten dekretuak indargabetzea.*
- *Gobernuak LOMCE gelditzearen aurka Konstituzio Auzitegian jarritako errekurtsua kentzea.*
- *Hezkuntza eta hezkuntza-erloko langileen lan-baldintzetan egindako murrizketak lehengoratzeta.*
- *Hezkuntza-erloko maila guztietako langileei eragiten dieten alderdi guztien negoziazio kolektiboa egitea, eta kanpora ateratako jardueri titulartasun eta kudeaketa publikoa ematea berriz.*
- *SINDIKATUEK lehentasunez parte hartzea, beste gizarte-eragile batzuekin batera, Hezkuntzaren aldeko hitzarmena eta Euskal Hezkuntza Legea negoziatzeko.*

Hori gutxi ez, eta hezkuntza-erloko langileei zuzenean eragiten dieten alderdiei dagokienez:

- *Lege bereizle bat mantentzen da, ibilbide baztertzaileak ezartzen dituena, ikasleak hautatzen eta sailkatzen dituena, derrigorrezko hezkuntza amaitu aurretik ere. Horrek berehalako ondorioak ditu hezkuntza-erloko langileentzat.*
- *Behar adinako finantzaketarik gabeko lege bat da, eta horrek beste arazo batzuk gehitzen dizkio hezkuntza-sistemari.*
- *Kanpo-ebaluazio goiztiarrak, ikasleak eta zentroak banantzen/bereizten dituztenak, jatorrizko gizarte- eta ekonomia-egoera edo beste edozein inguruabar pertsonal kontuan hartu gabe.*
- *Zentroak espezializatzeko eta sailkatzeko atea zabaltzen duen prozedura bat, ezinbestean ikasleak maila akademikoaren arabera hautatzea ekarriko duena.*
- *Zentroen norabideak indartzea, irakasleen eta are ikasleen hautaketa azpimarratuz. Ahaztu gabe horrek zer ondorio dituen irakasleen mugigarritasunean.*





- Hautazko ikasgaien eta, beraz, modalitateko ikasgaien murrizketa Batxilergoan. Horrek irakasleak murriztea eta birkokatzea dakar, eta eragina du haien lan-baldintzetan.
- Zentroetako langileen ezegonkortasunak, bitarteko kontratu asko baitaude eta lanean segurtasunik eza baita nagusi, hezkuntza-kalitatean eragina du.
- Lanbide-heziketa oinarrizkoa da, eta, ezinbestean, ikasleak hasieratik bereiztea dakar. Prestakuntza minimoarekin eramaten ditu ikasleak lan-mundura, eta prestakuntza araututik eta laneratzeko bideetatik kanpo uzten ditu ikasleak. Lanbide-heziketa horrek batik bat gizarte- eta ekonomia-arloan zailltasun handiak dituzten ikasleei eragiten die. Horrek "ghetto zentroak" sortzea dakar, eta eragin larriak ditu langileen lan-baldintzetan.
- Hezkuntza-erloko langileen lan-baldintzetan modu negatiboan eragiten duten neurriak. Hezkuntza-administrazioek ez dituzte erabili langile horien lan-baldintzak negoziatzeko erabili beharreko eta legez ezarritako bideak. Hezkuntza-administrazioek, kasu askotan, erakunde antolatzaileen iritzia gogoan hartzera mugatzen dute beren jarduna. Langileen lan-eskubideak larriki egin dute atzera.
- Profesionalentzat lan-baldintza duinak bermatzen zituzten lan-hitzarmenak sistematikoki urratzen dira. Administrazio horiek erabat gutxietsi dute negoziazio kolektiboa, eta sistematikoki hautsi dituzte hitzartutako lan-baldintzak.

Aipatu ditugun neurri guztiak hezkuntza-komunitatearen eta bereziki hezkuntza-erloko langileen legezko ordezkarien parte-hartzerik gabe egin dira.

AIPATUTAKO NEURRIEN ONDORIOAK:

Hezkuntza-erloko murrizketak estrategia zehatz baten ondorio dira. Estrategi horren helburua hezkuntzaren kalitatea beharrezkoa da, kontrarreforma batzuk justifikatzeko, egoeraren benetako diagnosiari inondik inora erantzuten ez diotenak eta, hortaz, hezkuntza-erloko benetako arazoei irtenbiderik ematen ez diotenak.

Hauek dira degradazio-politika horren ardatzak:

- Ezinezkoa da hezkuntza-arretan kalitate-estandarrari eustea, irakasle gutxiagok askoz ikasle gehiagori arreta eman behar badiote. Onartezina da administrazioak herritarrei sinetsaraztea eskola-porrotari aurre egin diezaiokela testuinguru honetan.
- Oinarrizko laguntza-neurri eta -zerbitzuen murrizketa: hezkuntza-zerbitzuetan langile gutxiago daude (laguntzaileak, zaintzaileak...), laguntza-gela batzuk desagertu dira... Horren ondorioz, bideraezina izango da gure herrialdean benetako hezkuntza inklusiboa ematea, eta balio handiko hezkuntza-laguntzako espezialisten eta profesionalen enplegua galtzen da. Kalitatezko eskolaz kanpoko jarduerak arrazoizko prezioan mantentzeko aukera ematen zuten laguntzak kendu edo mugatu dira.

EGINDAKO EKINTZAK:

- Hezkuntza Sailari eskatu diogu parte hartzeko eta entzunaldia izateko langileen eskubideei eragiten dieten neurri guztietan.
- Hainbat eskabide egin ditugu langileen eskubideak kontuan izateko, hezkuntza-administrazioek egindako aldaketei dagokienez.

Eskabide eta eskakizun horiek guztiek, hitz zuriak gorabehera, orain arte ez dute harrerarik izan, eta, ondorioz, arestian aipatu ditugun neurriak ezarri dira, aurrez negoziatu gabe, eta sindikatuak –hofs, konstituzionalki erabaturako elkarte demokratikoak– existitzen garelako kontuan hartu gabe”.



Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdín babesten du greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, eta informazio-askatasuna, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarritzko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, funtsezko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorrotztasunez aplikatuz hartu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, "egokitasun-judizioa" deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, "beharrizanezko judizioa" deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, "proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian". Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzat funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea balliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Alegia, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien artean ezinbestean lortu beharrekoa den koordinazioa oinarri hartuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Goi Auzitegiaren hitzetan–, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, greba-deialdi honen aurrean, zehazki greba hau nolakoa izango den hartu beharko dugu kontuan; hau da: alde batetik, bi egun osokoa izango dela, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko hezkuntza publikoaren sektoreari eta Haurreskolak partzuergoari eragingo diola.

Adierazitakoa dela-eta, lehenik eta behin, kontuan hartzekoa da hezkuntza funtsezko eskubidea dela, eta Konstituzioaren 27. artikulua halakotzat jotzen duela,



eskubide hori zentzu zabalean harturik; hau da, pertsonen bizi osoan indarrean dagoela aintzat hartuta, eta, hortaz, existentziaren lehen urteak ere barnean hartzen dituelarik, non hezkuntza-zerbitzua ematea beharrezkoa baita haurraren garapen integrala ahalbidetzeko. Unibertsitate-hezkuntza ere barnean sartzen da, Konstituzio Auzitegiak 26/1987, FJ 4., a) epaian adierazi zuen bezala: "hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen tratamendua, unibertsitate-arloan, ez da geratzen ezinbesteko zerbitzuen zehaztapenetik kanpo ikastetxe horietan lan egiten duten langileak greba-eskubideaz baliatzen diren kasuan. Horren ondorioz, ezin da baieztatu funtsezko zerbitzu horiek zehaztea Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua (Grebarako eskubideaz) kontrakoa dela".

Bermatu beharreko oinarrizko zerbitzuak zein diren zehazteko eta, beraz, unibertsitatez besteko ikastetxe publikoetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, kontuan hartu behar da zein diren, gutxi gorabehera, eragindako ikasleak:

2016-2017ko Araubide Orokorreko Irakaskuntza

Lehen zikloko Haur Hezkuntza (0-3)	29.269
Bigarren zikloko Haur Hezkuntza	60.980
Lehen Hezkuntza	129.432
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	81.401
Batxilergoa	30.248
Lanbide Heziketa	40.626
Hezkuntza Berezia	1.365
Guztira	373.321

2015-2016ko Araudi Bereziko Irakaskuntzak

Hizkuntza Eskola Ofizialak	27.204
Musika	37.934
Dantza	107
Arte Plastikoa eta Diseinua	496
Kirolekoak	686
Arte dramatikoak	15
Guztira	66.442

Bestalde, jokoan dauden eskubideen garrantzia bermatuko duten gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, nahitaezkoa da ikastetxeak irekita egotea, ikasleentzat, eta beharrezkoa ere bai, greba egiten ez duten langileek lanerako eskubidea – Konstituzioaren 35. artikuluan onartua – gauzatu ahal izan dezaten. Horregatik, gobernu-agintaritzak honek gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, gutxienez grebarako eskubidea ez baliatzea





erabakitzen duten langileen sarrera bermatze aldera, baita ikasleen sarrera ere; hain zuzen ere, zentroak irekiko ez balira, lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa guztiz eta bidegabeki eragotziko litzatekeelako.

Unibertsitatez besteko ikastetxeak irekitzea ez da «ikastetxea irekitze» hutsa; aitzitik, irakaskuntza-egitekoaren edo -jardueraren ezinbesteko «funtzionamendu-errutinak» bete behar dira (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztailearen eraginez), ikastetxe horietan instalazioak edo materialak zaintzeko eta ikasleak zaintzeko egiten direnen artean; izan ere, ikastetxe horietara ikasle adingabeak joaten direnez –adingabeei ezin zaie helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera eskatu haien jardunean, eta, horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko Epaia)–, berebiziko arreta eskatzen da ekiditeko modukoak diren arriskuak ezabatzeke edo murrizteke; alegia, instalazioak behar bezala eduki eta mantendu behar dira, zaintza eta kontrolatzeko lanak egin ere –*eta umeak edo ezgaiak irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean zaintzeko ardura hartzen bada [...] arreta berezia jarri behar da haien nozitu lezaketan edozein lesio edo kalte saihesteko*. Valentziako Erkidegoko JANaren 1526/2009 epaia, urriaren 23koa (Administrazioarekiko Auziak, 1. sek.)–. Horren ondorioz, ikastetxe horietan, gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa, aginte- eta/edo zuzendaritza-ahalmena duten pertsonak egotea ezarri beharko da, prebentzio eta segurtasunerako arreta ikastetxe horietara joaten diren adingabeentzat ikuspuntu objektibo batetik arriskutsuak izan litezkeen gunetara zuzentzeko ardura beren gain har dezaten.

Haurreskolak Partzuergoa osatzen duten zentroak zabaldu beharra dago, grebarekin bat egiten ez duten langileen lanerako eskubidea babesteaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko urriaren 28ko Epaiak hala baitauka adierazita, oinarrizko zerbitzua delako, bai Konstituzioaren 27. artikulua aitortzen duen hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen ikuspegitik, bai lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko zailtasunaren ikuspegitik. Gainera, zerbitzua lan egiteko eskubidearekin lotuta dago, gizarte-harremanen bilakaera dela-eta.

Horiek guztiak ikusita, agindu honetan zehazten dira gutxieneko zerbitzuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eksklusiboa gobernuak edukitzeak zera bermatzen du: muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Izan ere, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «*greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta gerora ezina den beharrianeko edozein zerbitzu eskaintzen duten enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua*





ziurtatzeko» eta «*Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake*».

Arau horretan –zeina konstituzionala baita (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11])–, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorriz, honako hau ezartzen da: «*Eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu jendearentzako funtsezko zerbitzuak mantenduko direla ziurtatzeko*», azken batean, gobernu-agintaritzari ematen zaio ahalmena edozein motatako berme-neurri hartzeko, greba kasuan ezinbesteko zerbitzuei eusteko modua egon dadin, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazio hori eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta greba deitu duten sindikatuei nahiz Hezkuntza Sailari hitz egiteko aukera eman zaie, Jaurlaritzaren proposamenaren eragina jasango duten zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremani buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko behar diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Unibertsitatez besteko hezkuntza publikoaren sektoreko eta Haurreskolak Partzuergoko langileek 2017ko maiatzaren 16rako deitu duten grebarako eskubidea balia dezakete, 0:00etatik 24:00etara eta lanaldi bereziak dituzten zentroetan maiatzaren 15eko 22:00etatik maiatzaren 17ko 8:00etara. Maiatzaren 23an, greba egun osokoa izango da.





Aurreko paragrafoan aipatzen diren egunetarako greba eskubidea baliatu ahalko da, baina ondoren zehazten diren nahitaezko prestazioak eta gutxienerako zerbitzuak bermatuz, betiere:

Unibertsitatez besteko hezkuntza publikoaren sektoreko zentroetan eta Haurreskolak Partzuergoko eskoletan, ondoren adieraziko diren zerbitzuak mantenduko dira, honako langile hauekin:

- a) Unibertsitateaz besteko hezkuntza publikoan: Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro publiko bakoitzeko: zuzendaritza-taldeko pertsona 1 eta mendekoen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.
- b) Haurreskolak Partzuergoa: Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro bakoitzeko koordinatzaile 1, edo hura ordezkatuko duen pertsona 1.

Bigarrena.- Ahal dela, zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ezarritako gutxienerako zerbitzuak langile horiekin bete ezin direnean izan ezik.

Hirugarrena.- Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxienerako zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketa edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kanpokotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Laugarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Bosgarrena.- Agindu hau grebarako deialdia egin duten sindikatuei eta Hezkuntza Sailari jakinaraziko zaie, agindutakoa betetzeko moduan egon daitezen.

Seigarrena.- Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.


Zazpigarrena.- Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beraz, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salari, 2 hilabeteko epean agindua jakinarazten denetik zenbatzen hasita; halaxe xedatu baita Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean.





Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriak 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke lan-administrazioko agintaritza egokian, agindua jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

Gasteiz, 2017ko maiatzaren 12a.



MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA

